

## 5. Aitzineuska Zaharraren berreraiketa ildoak

1. Aurrekariak.— 2. Erro monosilabikoaren teoria. — 3. Aitzineuskararen aldaketa tipologikoa. 4. Gramatikalizazioak

BIBL → Lakarra 2006a, 2013b eta 2013c.

### 1. Aurrekariak

Mitxelenaren AE-ren berreraiketak emaitza oparoak zituen berez. Fonologiaren aldetik, EA-koak ezin izan zitezkeen forma asko agerian jartzen zituen, hots, /m/, /p/ edo AE-ren kontsonante sisteman sartu ez zituen gainerako hotsak dauzkatena eta, ondorioz, edo maileguz, edo tartean jasotako hots aldaketen bitartez azaldu beharrak zirenak. Bestetik, bi silaba baino gehiago zuten forma ugariak ere, edo elkartu-eratorri, edo mailegu gisa azaldu behar ziren. Mitxelenak berak hainbat etimologia proposatu zituen bi ildo horietatik (ikus Arbelaitz 1978).

Galdera zen hortik atzerago nola egin zitekeen, euskara zaharrago batera nola hel zitekeen, baldin eta horrelakorik egiterik balego. Lakarrak, lehen unean, erroaren teoriari heldu zion, eta behin horretarako gero, nagusiki tipologia konparatuari (eta gero deribaren teoria indartsuagoari) eta gramatikalizazioari. Era honetara, datatu ezin dezakegun, baina Trask irakasleak definitu bezala Mitxelenaren AE baino askoz lehenago (“long long before”) kokatu behar dugun AE bat berreraikitzen ari da. Honegatik, Mitxelenaren berreraiketari “aitzineuskara berria” (AEB) deitzen diogu — “aitzineuskara modernoa” ere erabiltzen da (AEM)—, eta Lakarrarenari “aitzineuskara zaharra” (AEZ).

Mitxelenaren AEB, definizioz, euskara latinarekin ukipenean hasi zen garaian hitz egiten zen hizkuntza zatekeen (duela 2.000-2.500 urte, beraz), latin mailegu zaharrenetan eragina izan zuen hizkuntza modua delako. Lakarrarena ez dago hain erraz datatzerik, eta berak ez du datatu nahi, batere oinarri sendorik ez dagoelako; hala eta guztiz ere, baina pentsa liteke —AEBrekiko analogian oinarritutako espekulazioa baino ez bada ere— lehen olatu indoeuroparraren garaiko hizkuntza zatekeela, hots, Burdin Aroan aitzin-zeltak etorri ziren garaikoa (K.a. 800-600. urteen bueltan) eta are lehenagokoa: horrela baliz, duela 3.000 urteko hizkuntzaren berreraiketa litzateke.

Nolanahi ere, proposatutako aldaketa sakonek antzina-antzinako mintzaira bat dela iradokitzen dute, gaurkoaren antz gutxi zeukakeena, Lakarrak erakutsi baitu AEZk silaba bakarreko erroak bide zituela, CVC erakoak, eta orduetik eta euskara historikora bitartean gure hizkuntzak aldaketa tipologiko handi bat jasan duela, oraindik ere amaitu ez dena, hipotetikoki isolatzaile izatetik eranskari izatera igarorik. Honek askotariko ondorioak ditu euskal formen azterketan, teoria sendo guztiek bezala, teoria berresten duten etimologia mordoa baitakar berarekin, bai eta euskara historikoan diren irregulartasun askoren balizko azalpena ere.

AEBren berreraiketa zertan den ikusteko, haren ezaugarriak aipa zitezkeen, besterik gabe, baina hobetsi dut berreraiketaren ildoari jarraitzea —nondik hasi zen eta nondik doan aurreratzen—, emaitzak baino hemen askozaz gehiago interesatzen baitzaizkigu berreraikitze hartutako erabaki metodologikoak.

## 2. Erro monosilabikoaren teoria (EMT)

Mitxelenak berak ikusi zuen proposatutako silaba-egitura hura (ik. 4. gaia, § 2.3.4.2) zabalegia dela, ez bakarrik lekukoturik ez dauden silabak, baita ezinezkoak direnak ere sortzen dituelako. Gainera, bitxia da, sei osagitan bakarra —V, silabagunea— ezinbestekoa izatea, eta beste guztiak hautazkoak: honek esan nahi du Mitxelenaren iragazki hura ez dela behar bezain *trinkoa* edo zehatza, alegia, gehienez ere lehen hurbilketa bat baino ez dela.

Ildo horretatik, Artiagoitiak (1991) ezarri zuen -T ez dela beharrezkoa AE-ren silaba-egituran, adibide guztiek oso berriak diruditelako (*dut* < \**du-da*, *erret-* < *errege*, *bost* < *bortz...*), edo bestela forma adierazgarriak zein onomatopeiak direlako (*zut*, *ok*, *eup...*). Beraz, honen arabera AE-k aski zukeen (C)V(W)(R)(S) silaba-egiturarekin.

Dena dela, askoz gehiago murriztu daiteke oraindik. Silaba-egiturez eta antzekoez ari direnean ere berreraikitzaileek nolabaiteko hertsapenak izatea komeni delakoan, Benvenistek aspaldi indoeuropeistei gogoratu zien honetan jarri zituen begiak Lakarrak:

Egia esanda, [indoeuoperaren] erroaren izaeraz eta modalitatez orain arte erakutsi dena nozio enpirikoen, behin-behineko onarpenen, forma arkaiko eta atzo goizekoen nahaspila heteroklito bat da, ezin esan bezain irregular eta ulergaitza. (...) Nekez bai nekez zuritu ahalko ditugu indoeuoperari egozten zaizkion erro mota guztiak, eta zerrendatzen ere lanak genituzke. Hau teoria ahul baten seinale baino ez da. Indoeuopera ez da ateratzen aditz tema baten forma ezberdinak batzen, ezta hizkuntz egoera historiko baten berezitasunak historiaurrera proiektatzen ere. Konparazio zabalak eginez, jatorrizko sistema bere formarik bakunenean berreskuratzen saiatu beharra dago, haren ekonomia aldarazten duten hatsarreak [hau da, haren bakuntasuna zaildu dutenak] antzeman ondoren (Benveniste 1935: 147-148; itzulpena eta azpimarrak nireak; zabalago ikus Lakarra 2007: §2).

Fonologian Martinetek bezalaxe, Benvenistek pasarte honetan banan-banan egiten diren etimologiak kontra dihardu, eta batez ere etimologiak egiterakoan hizkuntzaren sistemari begiratu beharraren alde. Etimologiak sendoak izango badira, aztertzen ari garen sistema kontuan hartu behar: herskarien sistema Martineten kasuan, kontsonanteena Mitxelenarenean eta, Benvenisteren kasuan, erro-sistema, hizkuntza bakoitzak erroaren forma kanoniko bat duelakoan.

FORMA KANONIKOA, Martineten definizioaren arabera, “hizkuntza baten hitzen forma ohikoena” da. Hala bada, ezaguna da txinera zaharraren erroaren forma kanonikoa monosilabikoa dela, hizkuntza semitikoena hiru kontsonantez osatutakoa (C-C-C), eta abar. Diakronikoki ulerturik, forma kanonikoa jatorrizko sistemaren erro forma bakunena litzateke, Benvenisteren hitzak berrarturik: hau da, behinolako hizkiak oro ere alde batera utzita gelditzen zaiguna.

Forma kanonikoa ikertuz ordena jarri da hainbat hizkuntzaren erroen “nahasketa heteroklitoan”, zeren eta, fonologian bezalatsu, jatorrizko SISTEMAZ gogoeta egitera behartzen baikaitu, hau da, berreraikiko diren erroen formari hertsapenak ipintzera, edozer eta nolana berreraikitzea eragozten dutenak. Hizkuntza indoeuoper eta semitikoaren historiaren azterketan eman duen etekina ezaguna da aspalditik; halaber, erroaren eta morfemen azterketa sistematikoa laguntza handikoa izan da familia

uralikoan, sinitikoan<sup>1</sup> eta austronesioan, gutxienez (cf. Lakarra 2011a). Aldiz, euskarana ez zaio ikerbide honi heldu, inoiz ustezko urruneko ahaideek argituko zutelakoan edo.

Salbuespen bi aipatu behar dira honetan, biak ere *a posteriori* ezagutzera eman direnak, alegia, Lakarrak bere proposamena aurkeztu eta beranduago. Lehenik, Jose Franzisko Aizkibel hiztegitik ezagunak *Eusker*a eskuizkribuan (Gómez 2008 eta 2009) erakutsi zuen euskara antzina hizkuntza monosilabikoa zela, hala Sleicher-en ideietan<sup>2</sup> nola euskal hitzen analisi formalean oinarrituta. Bigarrenik, Uhlenbeckek (1942) forma aniztasun ikaragarria —Benvenisteren erara, “euskal nahaspila heteroklitoa”— agerian jarri zuen, bai eta aztertu beharra aldarrikatu ere. Hona euskal erroak sailkatzeko egin zuen saioaren erakusgarritxo bat:

- Silaba bakarrekoak

CV	<i>su</i>
VC	<i>ar</i>
VCC	<i>antz</i>
CVC	<i>hotz</i>
CVCC	<i>hartz</i>

- Silaba bikoak

VCV	<i>ate</i>
VCVC	<i>izar</i>
VCCV	<i>aste</i>
VCCVC	<i>astun</i>
CVCV	<i>zuri</i>
CVCVC	<i>sabel</i>
CVCCV	<i>garbi</i>
CVCCVC	<i>bizkar</i>

- Hiru silabakoak (askotan morfematan analizagarriak eta, beraz, erlatiboki modernoak)

*belarri, ipurdi, udare, uztarri, herio...*

- Polisilaboak (luzeegiak, eta gehienetan gardenegiak, antzinakoak izateko)

*belarrondoko, ipurtargi...*

Agerian denez, bi silabatik gorako erroak modernoak dira, gehiago edo gutxiago, Mitxelenak antzeman bezala, baina itxuraz zaharrak dira hala bikoak nola batekoak, eta hauek ere era askotakoak dira. Nola erabaki nahaspila honetan zein izan zen AE-ko erro kanonikoa?

Artean, egia da ikertzaileek behin baino gehiagotan morfemen jatorria beren fonotaktikaren arabera antzeman izan dutela (cf. Lakarra 2012b); horrela, esaterako, Mitxelenak (1964) *dollor* eta *abagada* maileguak zirela baieztatu ahal izan zuen forma hutsaz baliatuaz,<sup>3</sup> zehazki haien etimologia zein zen eta zein hizkuntzatatik mailegatuak ziren jakin ez arren. Hala eta guztiz ere, lekukotutako hitzetan nabarmen zaindu zuen alderdi hau ez zuen bere etimologietan zaindu, alegia, ez zuela erroaren aldetik inolako hertsapenik erabili formak berreraikitzerakoan, era askotako formak berreraiki baitzuten: silaba bikoak, batekoak zein polisilaboak, V-z nahiz C-z hasiak, -C batez edo

<sup>1</sup> Hizkuntza sinotibetarren adar bat osatzen dute hizkuntza sinitikoak.

<sup>2</sup> Dakigunez, Sleicher-ek uste zuen hizkuntzak monosilabiko izatetik eransle izatera igarotzen zirela, eta handik flexiodun izatera, gizartearen garapenaren arabera.

<sup>3</sup> *Dollor*-ek bi hots berezi ditu, AE-koak ezin izan daitezkeenak: *d > l / #* — arauaren arabera, hitz hasierako C hori ezin daiteke zaharra izan, zeren eta, zaharra izatera, *\*\*lollor* izango baikenukeen; sabaikaria ere ez da AE-koa, eta ez dirudi *il*-tik datorrela (behintzat *doilor dollor* bezain azalgaitza da euskararen barruan). *Abagada*-ren kasuan argudioa hauxe da: lau silabako hitza izanik, ez da euskaraz analizagarri (= ezin daiteke elkartu edo eratorri gisa analizatu).

gehiagoz zein -V-z amaituak, etab., berezko “nahaspila heteroklitoa” areagotuz. Adibidez, haren etimologia ezagunenetako bat, \**ardano*, bi silabakoa ez izanik, silaba bitik gora duten hitz guztiak bezala azaldu beharrekoa litzateke: (2+1) erara analizatuz gero, zer da \**arda*-? eta zer da \*-*no*? Baina berak ez zuen horrelakorik egin.

Aldiz, euskal erro egituren azterketa sistematikoaren bitartez, Lakarra (1995, eta hurrengoak) AE-ren erro forma kanonikoari buruzko hipotesi indartsu bat egitera heldu da: antzina silaba bakarrekoa izango zen, zehazki CVC erakoa. Nolatan heldu zen ondorio honetara?

Mitxelenaen ustetan, AE-ko hitzak funtsean silaba bikoak ziren, eta konposizio-oinarriak ere silaba bikoak (cf. 1977b: 270, esaterako): gogoratu iberieraren ereduko (2+2) eta (2+1) hura, funtsean [erroa + erroa] eta [erroa + atzizkia] erara ulertu beharrekoa. Ordea, zenbakietara joz Lakarrak erakutsi du uste hori okerra dela: zehazki, erro mota bakoitzaren hotsen konbinazioaz sor litezkeen balizko aukera guztien kopurua euskal lexikoan lekukotuak diren erroen kopuruarekin erkatu zuen, ondoko adibidean — berak landu zuen lehen erro motan— ikus dezakegun erara:

#### TVTV erro mota<sup>4</sup>

Balizko aukerak: 900  
Lekukotuak: 190 (%21,11)  
Etimologia ezezagunekoak: 16 (%8,42)  
Maileguak: 80 (%42,10)  
Onomatopeiak eta fonosinbolismoak: 36 (%18,94)  
Hondarrak: 0

*Bake, gogo, kuku* edo *gabe* bezalako hitzen TVTV erro mota arruntean, hasteko, balizko aukera guztietatik oso-oso gutxi dira lekukotutakoak (%21,11) eta, gainera, gehienak edo maileguak edo onomatopeiak zein fonosinbolismoak dira (guztira %61). Etimologia ezezagunekoetan (AE-ko erroak izateko aukeraren bat daukatenak, hau da, eskuarki “ondare zaharrekoak” deitu ohi ditugunak),<sup>5</sup> gutxi izateaz gain (%8,42), batek ere ez du igarotzen Lakarrak ezarritako iragazki zorrotzak: (1) iragazki fonetiko gaintzeko, Mitxelenaen berreraiketarekin bateragarriak izan behar (hasierako herskari ahoskaberik ez eta *p*-rik ere ez, gutxienez); (2) iragazki geografikoaren arabera balekoak izateko, berriz, gutxienez elkarren aldamenean ez dauden euskalki bitan agertu behar.<sup>6</sup> Azterketa honetan oinarrituta, Lakarra (1995) erroari buruzko hertsapen argi bat ezarri zuen: \*\*TVTV; hots, badira *bake, katu, bide, gabe, begi, dago, pupu* eta *kuku* bezalakoak ugari euskaraz, baina guztiak ere maileguak, elkartu-eratorriak edo onomatopeiak zein fonosinbolismoak dira.

<sup>4</sup> Non T = edozein herskari, ahostun zein ahoskabe.

<sup>5</sup> Ondare zaharrekotzat ditugun hitzak ez dira nahitaez ondare zaharrekoak, jakina: gehienez ere esan dezakegu AE-ko erroak izateko aukera dutela edota orain arte ez dela demostratu bestetik datozela. Honegatik Lakarra nahiago izan du “etimologia ezezagunekoak” bezala izendatu, euren izaera aurrez ebatzi gabe.

<sup>6</sup> Iragazki hauen funtzioa ere berreraiketari ahalik eta hertsapenik zorrotzenak —“deserosoenak”— ezartzea da. AE-tik datozen erroak ez dira denak Euskal Herri osoan erabiliak gaur egun, jakina, baizik eta haietako batzuk han edo hemen bakarrik gorde dira, hainbat menderen ostean gainerako lekuetan hitz berriek ordezkatu dituztelako, normala denez. Baina, alderantziz, han edo hemen bakarrik erabiltzen diren erroak ez dira nahitaez AE-koak, baizik eta bertan egindako berrikuntzak ere izan daitezke. Beraz, *iratzarri* (V-arr-oro-z-m-gip, G-nav, AN-5vill, L, BN, Ae, S, R-uzt ap. *OEH*, s.v.) litzateke goian esandakoaren adibide egoki bat: hala mendebaldean nola ekialdean gorde izanak bermatzen du noizbait Euskal Herri osokoa izan zela, nahiz artean *esnatu* berrikuntzak ordezkatu erdialdeko hainbat lekutan [gogoratu guretzat “erdialdekoa” = Euskal Herriaren erdialdekoa, hots, G, GN eta L ingurukoa, ezaugarriaren arabera].

Honenbestez, nekez pentsa genezake TVTV erro eredia zaharra denik euskaraz, eta hau oso esanguratsua da, zeren eta herskariak eta bokalak hots ugarienak baitira euskaraz,<sup>7</sup> eta silaba irekiak (hots, CV erakoak) giza-hizkuntzetan naturalenak eta unibertsal bakarrak direlako.

TVTV eredian ez ezik, gainerako erro ereduetan ere emaitzak oso eskasak ziren, batean izan ezik. Har bedi ondoko taula, ereduz eredu egindako ikerketak laburbiltzen dituenaren:<sup>8</sup>

EE	IZ	L	%	EZ	%-1	%-2	H	%-1	%-2	M	%-1	%-2
CVC	325	152	46,76	70	46,05	21,53	48	31,18	<b>14,76</b>	12	<b>07,89</b>	03,69
oCV:	85	29	34,11	07	24,13	08,23	06	20,68	<b>07,05</b>	07	<b>24,13</b>	08,23
aCVC	425	110	25,88	33	30,00	07,76	15	13,63	<b>03,52</b>	16	<b>14,54</b>	03,76
oCCV:	215	39	18,13	08	20,53	03,72	06	15,37	<b>02,79</b>	10	<b>25,63</b>	04,65
aCV:	85	64	75,29	04	06,66	04,70	02	03,12	<b>02,35</b>	14	<b>21,87</b>	16,46
uCV:	85	44	51,75	05	11,36	05,83	02	04,54	<b>02,35</b>	07	<b>15,90</b>	08,23
aCCV	215	82	38,13	12	14,64	05,58	04	04,87	<b>01,85</b>	15	<b>18,30</b>	06,97
SVTV:	300	75	25,00	13	17,33	04,33	04	05,33	<b>01,33</b>	28	<b>37,33</b>	09,33
oCVC:	425	47	11,05	07	14,59	01,64	05	10,63	<b>01,17</b>	06	<b>12,76</b>	01,41
TVRV:	600	195	32,50	25	13,07	04,33	04	02,05	<b>00,66</b>	95	<b>48,71</b>	15,83
TVSV:	600	95	15,85	14	14,73	02,33	03	03,15	<b>00,50</b>	47	<b>49,47</b>	07,83
SVRV:	200	71	35,50	05	07,04	02,50	01	01,40	<b>00,50</b>	27	<b>38,02</b>	13,50
hVCV:	425	54	12,47	18	33,33	04,23	02	03,70	<b>00,47</b>	07	<b>12,96</b>	01,64
uCVC:	425	54	12,70	05	09,25	01,17	01	01,85	<b>00,23</b>	05	<b>09,25</b>	01,17
RVTV:	300	69	23,00	09	13,04	03,00	01	01,44	<b>00,03</b>	36	<b>52,17</b>	12,00
mVCV:	425	94	22,10	12	12,76	02,82	00	00,00	<b>00,00</b>	47	<b>50,00</b>	11,05
TVTV	900	190	21,11	16	08,42	01,77	00	00,00	<b>00,00</b>	80	<b>42,10</b>	08,88
uCCV	215	45	20,93	06	13,33	02,78	00	00,00	<b>00,00</b>	08	<b>17,77</b>	03,72
RVRV:	200	41	20,50	02	04,87	01,00	00	00,00	<b>00,00</b>	14	<b>34,14</b>	07,00
CVmV:	325	49	15,07	09	18,35	02,76	00	00,00	<b>00,00</b>	22	<b>44,88</b>	06,77
RVSU:	200	24	12,00	00	00,00	00,00	00	00,00	<b>00,00</b>	15	<b>62,50</b>	07,50

Begi kolpez ikusten da CVC dela alde handiz nagusi azken laugarren zutabearen (%-2), non CVC = %14,76; aldiz, silaba biko erro asko (12/20tik) %1 era ere ez dira iristen, eta soilik bi igarotzen dira %3tik. Kopuru honek adierazten du benetan lekukotzen diren CVC erako hitz soilak (*bits, gor, hil, hotz, lan...*) edozein eredu bisilabikotakoak baino askoz portzentaia handiagoan direla etimologia ezezagunekoak —ez maileguak, ez aldaera modernoak, ezta eratorri-elkartu edo fonosinbolismoak ere—, eta ia guztiek gaintzen dituztela jar dakizkiekeen iragazki fonotaktiko eta geografikoak oro. L zutabeari begiratuta ere nabarmena da CVC silaba bakarreko erroak izan zitezkeen 325 balizko formatatik 152 gauzatuak direla (eta euskara historikoa gordeak), hau da, ia erdiak (%46,76).

Datu berri hauek azaltzeko, Lakarrak proposatu zuen AEZean erroa CVC monosilabikoa zela. Oso hipotesi indartsua da, eta oso emankorra, zeren eta euskal erro mota ugariak —CVC-z beste guztiak— berraztertzer behartzen baikaitu, nola sortu diren jakitearren. Honenbestez, Erro Monosilabikoaren Teoriak (EMT) berehala erro berriak, mailegu berriak eta baita gramatika zaharreko zenbait prozesu historikoki ezezagun edo ahaztuak ere agerian jarri zituen.

ANTZINAKO CVC ERRO BERRIAK.— Lakarrak bere zenbakietan sartu ez bazituen ere, ezagunak ziren lehenagotik antzinako CVC erro batzuk, Mitxelenak berak edo bere gisakoek berreraikitakoak, hala nola *\*bel* (*ubel, goibel, orbel*), *\*din* (*berdin, urdin*), *\*bil* (*\*bil-du*, cf. *biribil* ere), *\*har* (*har-tu*), *\*gin* (*\*e-gin*), *\*zan* (*\*e-i-zan > izan*), *\*khar* (*\*e-khar-i*), *\*khus* (*\*i-khus-i*) eta *\*thor* (*\*e-thoR-i*). EMT-k hainbat erro berreraiki gehiago erantsi ditu, hala nola *\*dar* (*adar < \*da-dar; jarri > \*e-daR-i*), *\*dats* (*adats < \*da-dats*), *\*der* (*eder < \*de-der*), *\*han* (*ahuntz, ahari, handi*), *\*ger* (*akher, oker*), *\*zen* (*ezen, gizen*), etab.

<sup>7</sup> Beheko taulan, IZ zutabearen, argi ikus daiteke TVTV erroak beste edozeinek baino askoz aukera gehiago sor litzakeela (900, hurrengoan 600en aldean).

<sup>8</sup> EE = erro eredia; IZ = izan zitezkeen formak; L = lekukotutako formak; EZ = etimologia ezezagunekoak; H = EZ, iragazki fonotaktiko eta geografiko ezarri ondoren; M = maileguak; %-1 = H gehi M zati L; %-2 = H gehi L zati IZ. Datuak Lakarra (2004a)koak dira.

Goiko taulan silaba bakarreko ereduaren eta silaba biko ereduaren artean dagoeneko agertu zaigun alde handi hori halako bi edo egiten da baldin eta berreraiketaren bitartez eskura ditzakegun erro monosilabiko horiek guztiak ere aintzat hartzen baditugu. CVC-ren hondarrak (= H) 90 edo lirateke, litezkeen 325 balizko erroei buruz: azken laugarren zutabeko emaitzak, hortaz, %14,76tik %27,6ra igoko luke eta, CVC gauzatuak 190 inguru izanik, hondarrak gauzatuei buruz (H zutabearen ondoko “%-2” zutabea) %31,18tik %47,2ra. Azken honek esan nahi du lekukotutako CVC erroen erdiak inguru (%47,2) etimologia ezezagunekoak direla eta, beraz, definizioz, orain arte berreraiki ahal izan dugun AE zaharrenaren erroak.

MAILEGU BERRIAK.— CVC ez diren euskal hitzen artean mailegu gehiago proposatu ditu Lakarrak, batzuk nahiko esperoezinak agian, hala nola *alu* (< lat. *alvu* ‘sabela’), *esker* (< lat. *uoster* ‘zurea’) eta *leher* (< lat. *treme(re)* ‘dar-dar egin’).

Izan ere, goiko taulako eskubiko hiru zutabeetan diren mailegukikoei kasu egiten badiegu, guztiz ezberdinak dira emaitzak, ia-ia kontrakoak: oso CVC mailegatu gutxi ditugu, eta askozaz gehiago silaba bikoaren artean. Orain ere monosilabo berreraikiak gogoan harturik, horien artean ez baitugu aise mailegurik aurkituko, “%-1” zutabeko %7,89 %6,3ra jaitsiko litzateke CVC mailegatuen proportzioa.

GRAMATIKA ZAHARRAGOAREN ZANTZUAK.— CVC ez diren erroak analizatu beharrez, egun zeharo galdu eta fosildurik dauden antzinako gramatikaren zantzuak topatu ditu Lakarrak; beste era batera esanda, etimologia multzo zabalak azal ditzaketen gramatika-fenomenoak, batzuk espero izatekoak (a), baina besteak espero ezinak edo gaitzak bederen, hala nola erreduplikazioak (b) eta (c) aurrizkiak:

- a. *Hortz* eta *beltz* berez ez dira analizagarriak, baina CVC ez diren heinean, bistan dago gehiegizko *-tz* hori noizbait ez zela errokoa: beraz, CVCtz hitzak ezinbestean edo eratorriak dira, edo maileguak. Gure adibideak eratorriak bide dira: *beltz* < \**bel* erraza da erabakitzen, \**bel* erroa garbi isolatu baitugu ondare zaharreko hitz gehiagotan, goraxeago ikusi bezala. Bestea ilunagoa da, baina baduke azalpenik, baldin eta, batetik, *hor* ‘txakurra’ arkaikoa aintzat hartzen badugu (cf. *artzanor* ‘artzain txakurra’ eta gogoratu RS 246 *oragaz heroen elicatura* ‘txakurraren eta eroaren...’) eta, bestetik, gaztelaniazko *canino*-ren analogia baliatzen badugu: *hortz* < \**hor-tz*, hala nola gatz. (*diente*) *canino* < *can* ‘txakurra’ + *-ino* (adjektiboak egiteko balio duen atzizkia). Analisi honek behartzen gaitu *-tz* antzinako nolabaiteko atzizkitzat hartzera, jakina.

Honek esan nahi du CVC-tz erako hitz guztiak berdin analizatu behar direla? Ez nahitaez. Adibidez, *pertz* ‘lapikoa’ ezin \*\**per-tz* zatikatu, \**per* ez delako ezer, dakigularik: beraz, *pertz* mailegutzat jotzea baino ez dugu, EMTren arabera AEZ-z -CC ezinezkoa baita. Hori bera dioskute haren hasierako ahoskabeak (iragazki fonetikoak: \*\**p*), haren aldaerak (ik. *OEH*, s.v. *bertz*)<sup>9</sup> eta are haren etimologia ezagunak (gask. zah. \**pers*) ere, baina, hain garbia ez balitz ere haren etimologia, EMT-ak hipotesi berera eramango gintuzke: alegia, *pertz* mailegua dela suposatuz, bere euskal itxura ederragatik ere.

- b. Erreduplikazioak, zehazki ezkerretarantzko erreduplikazio partzialak: \**go-gor* (> *gogor*), \**da-dar* (> *adar*), \**da-dats* (> *adats*), \**de-der* (> *eder*), \**do-dol* (> *odol*), \**ze-zen* (> *zezen*), \**nanal* (> *ahal*), \**nanan-* (> *ahantzi*), etab.

<sup>9</sup> *b-/p-* aldaeradun hitzak euskaraz maileguak dira: *biper/piper*, *bekatu/pekatu*, eta abar. Berriz, ez dago *begi/\*\*pegi* edo *buru/\*\*puru* bezalakorik.

Erreduplikazioak lehendik ezagunak ziren; Mitxelenak berak (1970: 72) *gogor*-ez hauxe dio, adibidez: “De *gor* ‘sordo’, por reduplicación \**gor-gor* y disimilación”. Alabaina, artean inork ez zuen proposatu erreduplikazioa hitz eraketa eredu emankor gisa. Lakarraren hurbilketarekin daukan bigarren ezberdintasuna, hauxe: Mitxelenak disimilazioz azaltzen zuen CVCCVC > CVCVC aldaketa, baina, esan berri dugunez, Lakarraren ustez erroa ezkerretara partzialki bakarrik kopiatu da, CV gisa, hots, ez dago \**gor-gor* > \**gogor* aldaketarik, \**go-gor* erreduplikazio partziala baizik, gainerako adibide guztietan bezala.

- c. Aurizki berriak: \**sa-* (*sa-bel*, *sa-hets*, *sa-mur*); \**gi-* (*gi-bel*, *gi-zen*, *gi-har*); \**la-* (*la-bur*, *la-gun*, *la-bar*), etab. Beranduago ikusiko dugu (§ 4.1) zer dela eta hartzen dituen aurizkitzat, eta ez CV(C) erro zahartzat.

Aditzean ere, Lafonek aipatu zuen eredu-aniztasuna (VC *utz*, CVC *thoR*, VCVC *akhin*, VVS *aus*, etab.) CVC-ra eraman liteke: *utzi* < \**e-dutz-i*, *jakin* < \**e-da-kin*, *jausi* < \**e-da-dus-i*, etab. Era honetara, Lakarrak erakutsi du aditzean lehen ezagutzen zirenak (\**e-* eta \**ra-*) baino gehiago eta garrantzi handiagokoak zirela aurizkiak: \**e-CVC*, \**e-da-CVC*, \**e-ra-CVC*, \**e-da-ra-CVC* (\**ardano* < \**e-da-ra-dan-o*), \**e-i-CVC* (*izan* < \**e-i-zan*), \**e-i-ra-CVC* (*i-ra-kats-i*), etab.

Orain arte ikusitakoez gainera, beste bi ondorio garrantzizko izan ditu EMT-k:

CVC-REN SALBUESPENAK.— Nabarmenki badira bi hertsapen monosilabo lexiko modernoetan (*har*, *gatz*, *lan...*): \*\*CV eta \*\*VC. Salbuespenak gutxi dira eta normalean azalerrazak: adibidez, baditugu *su* (CV) eta *ur* (VC), baina *surtan*, *surtara* (< \**sur*, non *r* >  $\emptyset$ , hala nola *hiruretan*, *lauretan* < *hirur*, *laur*), eta bigarrenerako cf. zubereraz *hur*.

Eredu honetatik at daude partikula gramatikalak (*ni*, *gu*, *al*, *ote*, *edo...*), espero bezala. Partikula gramatikalek hizkuntza guztietan forma kanonikoaz beste bat dute, beren burua nabarmen egin nahiko balute bezala. Geroago ikusiko dugu zer dela eta diren, diakronikoki begiratuta, forma kanonikoaz bestelakoak. Edonola ere, haien ezberdintasun horrek berak bermatzen du forma kanonikoa zein den, forma kanonikoaren negatiboa balira bezala. Onomatopeia eta fonosinbolismoak ere sistematikoki CVC-tik urruntzen dira (*krask*, *dzaust*, *txist*, etab.). Hotsei buruz esan bezala, fonosinbolikoa izan nahi baduzu, erroaren forma bitxia izango duzu, forma kanonikoaz bestelakoa, inolaz ere.

Bi salbuespen orokor aipatu ditugu eta hirugarrena gogoratzea baino ez zaigu falta: maileguak, jakina.

AE HIZKUNTZA ERANSLEA OTE? EMT-k tipologiara begira jartzen gaitu, baldin eta kontuan hartzen badugu CVC erro-egitura ez dela hizkuntza eransle ezagunenetan aurkitzen: uralikoz, esaterako, erroak CV(C)CV dira %98-99an. Hurrengo atalean ikusiko dugunez, badira arrazoi gehiago eta sendoagoak AEZ-tik aurrera euskararen tipologia biziki aldatu dela sinisteko.

### 3. Aitzineuskararen aldaketa tipologikoa

#### 3.1. Tipologia eta deribaren teoria

Hizkuntzen tipologia lantzea aspaldiko kontua da: lehenago ere ikusi dugu Schleicher (1850) hizkuntzak aurrerabidearen hiru egoeratan sailkatzen eta, primitibotik

aurreratuenera, monosilabikoak > eransleak > flexiodunak norabidean ordenatzen. Tipologia batez ere hala sintaxiaren nola fonologiaren alorretan aski landua zen, hizkuntza aniztasunean datzan konplexutasun ikaragarria zenbait hizkuntza *tipo* edo motaren bitartez *trinkotzen*. Hemendik sortu zen “hizkuntz unibertsal” kontzeptua, hots, hizkuntza guztiek dituzten ezaugarriak: esate baterako, unibertsalak lirateke “hizkuntza guztiek izenordainak dituzte” eta “mintzatuak badira, hizkuntza guztiek kontsonante eta bokalak dituzte”. Honelakoei “unibertsal absolutuak” izena ere ematen zaie.

Joseph Greenbergek (1966) bultzada handia eman zion tipologiaren azterketari, “ondoriozko unibertsalak” (ing. “implicational universals”) ere badirela erakutsiz, hau da, egitura jakin bat agertuz gero bestea ere agertuko dela dioskutenak. Adibidez, “VSO ordena daukaten hizkuntzak preposiziodunak dira”.

Greenbergen saioak hizkuntzen azterketan ondorio interesgarriak izan arren, eszeptizismo handia sortu zuen, bestalde, ia ezinezkoa baitzen berak elkarrekin lotu zituen halako ezaugarriak hizkuntzen ehuneko ehunean aurkitzea: aitzitik, beti agertzen zen hizkuntzaren bat edo beste delako “tipo” batek bete behar zituzten ondoriozko unibertsaletan huts egiten zuena. Adibidez, SOV hizkuntzek [-prep], [-IzGen] eta [-IzAdj] izan ohi dira, hots, postposizioak dituzte eta genitiboa zein adjektiboa izenaren aurretik jarri ohi dituzte; alabaina, beheko taulan ageri denez, euskarak lehen bi ezaugarriak baditu, baina adjektiboaren kokapenari dagokionez [+IzAdj] da, eta hau SVO zein VSO hizkuntzei dagokien ezaugarria da; alemanari alderantziz gertatzen zaio, ordea: SVO izan arren [-IzAdj] hizkuntza dugu; azkenik, latinak preposizioak ditu, nahiz SOV izan:

		Prep	IzAdj	IzGen
galesera	I (= VSO)	+	+	+
berberera	I (= VSO)	+	+	+
grekoa	II (= SVO)	+	+	+
gazt., fr.	II (= SVO)	+	+	+
alemana	II (= SVO)	+	-	+
latina	III (= SOV)	+	-	-
ketxuera	III (= SOV)	-	-	-
euskara	III (= SOV)	-	+	-

Beste era batera esanda, Greenbergen eta besteren ikerketatik eratorritzen zen bazirela “harmonia tipologikoa” zeukaten hizkuntzak, hots, euren tipo sintaktikoari zegozkion gainerako ezaugarriak ere bazituztenak; baina eratorritzen zen, berebat, munduko hizkuntzetan harmonia hori aurkitzen zaila zela, arrazoiak arrazoi, eta sarritan joerez bakarrik hitz egin zitekeela: “joerek” ez dute hizkuntza guztietarako balio, baina hain dira usuak —hain dira estatistikoki esanguratsuak— non nekez pentsa baitezakegu kasualitateari zor zaizkiola.

Askotan “joerez” hitz egitera behartuta egon arren, hizkuntzalari askorentzat argia zen botere azaltzaile handia zuela tipologiak. Galdera bi hauei erantzun behar, ordea: Zergatik da hain zaila harmonia tipologikoa duten hizkuntzak aurkitzea? Zer dela eta “joerak” bakarrik, eta ez “unibertsalak”?

Erantzuna Sapir-en (*Language*, 1921) aspaldixko intuizio batetik etorri zen, *deriba*-ren teoriatik (ing. *drift*): hizkuntza bizi bat ez da zati autonomoen bilduma hutsa, osotasun harmoniatsu eta beregain bat baizik, kanpoko zerek nekez aldatzen dutena, baina barneko plan enigmatiko baten arabera bilakatuz doana. Deribaren teoria hatsarre

honetan oinarritzen da: Hizkuntzak ez dira noraezean aldatzen, norabide jakin batean baizik. Honen arabera, bada, munduko hizkuntzetan zaila da harmonia tipologikoa topatzen, guztiak etengabe tipoz aldatzen ari direlako. Tipologikoki harmoniatsuak diren hizkuntzak ez dira salbuespenak, beraz, kasualitatez “argazkia” egiterakoan egoera tipologikoki harmoniatsu batean topatu ditugunak baizik. Adibidez, ikusi dugu latinak preposizioak dituela SOV izan arren: hizkuntza erromantzeak SVO-ra aldatu dira, preposizioei hobeto dagokien hitz hurrenkera batera.

### 3.2. Euskararen tipologia

Euskararen egitura aspalditik era jakin batean azaltzen da —ikus Trask (1998) adibide garbi baterako—, eta gutxienez ondoko ezaugarriak aipatzen dira:

- 1) eranslea
- 2) SOV hurrenkerakoa
- 3) oso aditz aberatsekoa
- 4) ergatiboa
- 5) atzizki ugariak aditzean eta izenean
- 6) aurrizki eta preposiziorik ez

Bistan da funtsean horrelakoa izan dela lehen lekukotasunetatik, baina, eta lehenago? Aztertu diren gainerako hizkuntzek ez bezala, euskarak ez du aldaketa aipagarriak izan azken bi edo bost mila urteetan, ala?

Euskara ere aldatu dela erakusten duten lau ezaugarri behintzat lehendik ere ezagunak ziren, euskararen harmonia tipologikoa nabarmen hausten duen [+IzAdj] ezaugarriari honako hauek erantsirik:

- 1) Ziurrenik VSO → SOV aldaketa pairatu du.
- 2) Euskara Arkaikoan [+IzGen] eta [+IzErl] hurrenkera euskara historikoan dena baino ugariagoa bide zen, eta agian lehenago eta ugariago: honek [+IzGen] ohiko hurrenkeratzat zuen AE batera eraman gaitzake eta, gorago ikusi bezala, ezaugarri hau ere ez dagokio SOV hizkuntzari.
- 3) AEZe an erro kanonikoa CVC bazen, kontuan hartu beharko dugu hizkuntza monosilabikoak ez eranskariak, baizik eta aski isolatzaileak izateko joera dagoela: cf. vietnamera eta txinera zaharra, adibidez.

Azal ditzagun polikiago lehenengo biak. Traskek (1977) 3. pertsonarekin lotu ohi ziren *da-*, *l-*, *b-* eta *z-* markak (*dator*, *letor*, *betor*, *zettorren*) erakutsi zuen ez direla pertsona-markak, aspektu-markak baizik. Hau horrela balitz, *da-tor* bezalako adizki batean, *da-* edo aurrizkia edo kopula<sup>10</sup> baino ezin izan. Honek dituen ondorioen artean bat dagokigu guri: aspektu marka (*da-*, *etab.*) ezkerretara egotea ez dagokio SOV hizkuntzari, VSO edo SVO denari baizik, aurrizkiak hizkuntza hauetan bakarrik espero ditugulako (ik. § 4.1.eko taula). Honen ostean, Gómezek (1994) eta Gómez & Sainzek (1995) erakutsi dute euskarak V hasierako hizkuntzak (zeltak, germanikoak...) bezala jokatzen duela: egia da V ezin dela sekula hasiera absolutuan agertu (\*\**dator amona*), baina bai ager daiteke baldin eta partikula jakinen bat badarama aurretik (*badator amona* eta ez *dator amona*). Hemendik ondorioztatu zuten euskara ere antzina VSO izan bide zela.

<sup>10</sup> Euskaraz kopula gisa darabilgun *da* adizkia bera, alegia.

[+IzGen] hurrenkera, bazirudien *fase sparita*-n zegoela, Erdi Aroan-eta ugari aurkitzen dugulako, gutxienez Bigarren Euskara Modernora arte:<sup>11</sup> gogoan har ditzagun, esate baterako, *Peru Gurea* baladaren eta *Milia Lasturko* eresi ospetsuaren protagonistaren izenak. Erlatiboa izenaren eskuinetara ere ondotxo lekukotzen da garai bertsura arte.<sup>12</sup> Lehen unean, bada, bi ezaugarriok ere antzinako tipologiaren aztarnatzat jotzeko tentazioa izan bada ere, Krajewskaren azterketek (2016, 2017) gonbidatzen gaituzte tentuz hitz egitera eta azterketa gehiago egitera, ordena hori eragin zezaketen faktore gehiago jokoan daude eta.

### 3.3. Tipologia holistikoa eta euskararen deriba

Tipologia ez ezaugarri solteen anabasa loturagabe gisa, baizik eta hizkuntz atal ezberdinetako (fonologiako, morfologiako eta syntaxiko) ezaugarri nagusien sare bezala ulertzeak —hau da, tipologia holistikoa egiteak— sinkronian garrantzia badu, diakronian berebiziko laguntza eman liezaguke berreraiketa zabal eta sendoagoa egiteko orduan —berreraiketari hertsapenak ipintzeko modua dela berriro ere esan behar— eta baita aldaketa kateak aurreikusi eta azaltzerakoan ere.

Lakarrak (2006) zehazki Donegan eta Stampek (2004) munda eta mon-khmer hizkuntza familien artean egindako erkaketan oinarritu zen, kidetasun handiak sumatu baitzituen hizkuntza familia horien eta euskararen artean. Munda hizkuntzak Indiako ekialdean erabiltzen dira, eta mon-khmer hizkuntzak Indotxinan. Biak ala biak familia austroasiarraren azpitaldeak dira.

Donegan eta Stampek erakutsi dutenez, munda eta mon-khmer hizkuntzak oso ezberdinak direla esatea gutxi da: izan ere, sistematikoki kontrajarriak dira fonologia, morfologia eta syntaxiko ezaugarri nagusienetan. Egile hauek uste dute hizkuntzek pairatzen duten deriba etengabearen eragilea erritmoa dela, eta zehazki proposatu dute azentuaren kokagunean batzuek eta besteek kontrako bideak hartu izanak azaltzen duela beren arteko ezberdintasun erabateko hori.

Bietan munda hizkuntzak dira berritzaile eta mon-khmer hizkuntzak gordetzaille. Beraz, baldin eta munda hizkuntzetan bisilabismoa, bokal (V) inbentarioaren murriztapena eta kontsonante inbentarioaren hedadura, SOV ordena, atzizkien garapena eta aurrizkien galera, aditz-multzoaren emendatzea eta beste hainbat berrikuntza elkarrekin lotuta badaude, bai eta guztiak “azentua azken” → “azentua lehen” sakoneko aldaketa garrantzitsuenekin, orduan euskarak harekin hainbat eta hainbat ezaugarri partekatzen dituzenez gero, pentsatu beharko genuke nozbait AE-k ere “azentua azken” izan zezakeela mon-khmer hizkuntzek legez (eta Mitxelenak proposatu bezala) eta ez “azentua lehen” (Martinetek proposatu bezala), munda modernoak legez. Horrela izatekotan —eta hasperenaren azterketak horren alde egiten du, ikusi dugunez— AE-k atzizki eta postposizio gutxi, aurrizkiak eta preposizioak, aditz sistema bakuna, analitikoa, silaba bakarreko erroak, VO ordena, bokal gehiago, kontsonante gutxiago... behar zukeen izan.

Oso hipotesi indartsua bada ere, berreraiketan aurrerago eta aldaketa tipologikoaren argudio gehiago aurkitzen ari dira (cf. Lakarra 1996a, 2006a), zehazki euskara antzina eranslea ez zela frogatzeko balio dutenetakoak. Izan ere, hizkuntza

---

<sup>11</sup> Esan liteke, agian, [+IzGen] hurrenkera garbizaletasunak literatur hizkuntzan “debekatu” zuen arte iraun zuela, beharbada erdal kalkotzat jorik.

<sup>12</sup> Adibidez, honela dio Larramendik gramatikan: “honela eraiki behar da, *dedan eskua miragarria da*, eta ez *esku dedana*, nahiz inoiz honela esaten den” (Larramendi 1729: 276-277; nik itzul.).

eransle garbiekin (uralikoak, turkikoak, japonikoa, Australiakoak...) erkatuta, euskarak haiek baino eransleari dagozkion ezaugarri gutxiago eta berankorragoak ditu:

- Bisilabismo berankorra: ez AEZkoa, ezta orokorrean AEBkoa ere
- Aditza ez amaieran, baizik eta aurrerago, agian ezkerrean (VSO)
- Adjektiboa ez izenaren ezkerretara, baizik eta eskubitara [+IzAdj]
- Atzizki ugari ez, baizik eta aurrizkiak
- Beheranzko azenturik ez, baizik eta goranzkoa<sup>13</sup>

Honek guztiak esaten digu erlatiboki berandu —ez AEZean, behintzat— hartu zukeela euskarak historikoki garbitzat eman ohi den eredu eranslerako bidea (cf. Lakarra 2006a).

Morfologian AE aurrizkibera izatetik atzizkibera izatera igaro zela (munda hizkuntzak bezalaxe) ez da argudio formal orokorreatatik bakarrik ondorioztatzen; hor dira, izan ere, *gi-*, *la-*, *da-*, *za-*, *le-*, *i-* / *-ki*, *-la*, *-da/-t*, *-z(a)*, *-le*, *-i* bezalako bikoteak (honetaz ik. § 4.1).

Sintaxiaren analitismoaren aldeko zantzuak ugalduz doaz ikerketa berrietan. Adibidez, adizki jokatuak ezin dira oso zaharrak izan eta, besteak beste, pertsonamarkak berandu-berandu baino ez zitzaizkien erantsi: *dihardukazu*-ra iristeko lehenik *\*e-da-ra-dun*-ek *inardun*-era iritsi behar izan du, eta *\*e-da-ra-gotz-i-k* *urgatzi*-ra, gero *drugatzula*<sup>14</sup> izango badugu. Are gehiago: *dator* eta *dakar* lehenago *\*da(r)-thor* eta *\*da(r)-khar* izan ziren, hots, “aditz inpersonalak”, Traskek (1977) eta Gómezek (1994) ikusi legez.<sup>15</sup>

Ondoko ataletan euskararen deribaren teoriak izan dituen zenbait ondorio gehiago berpasatuko ditugu.

### 3.4. Ondorioak fonologian

#### 3.4.1. AEZren fonologi sistema

Munda eta mon-khmer hizkuntzekiko konparaketatik eratortzen den ondorioetako bat da aitzineuskarak antzina bokal gehiago eta kontsonante gutxiago izan bide zituela. Hori da teoriak dioskuna, baina, ba ote horrelakorik susmatzerik barneberreraiketaren bitartez? Baietz erantzun behar, kontsonanteetan bederen, eta honek ere bere aldetik galdera berriak sortzen ditu. Ikus dezagun.

Bokaletan Mitxelenaren egoera berarekin egiten dugu topo: baliteke, beraz, AEZk bokal inbentario zabalago bat izatea, baina oraingoz ez dugu asmatu horretara heltzeko biderik. Inbentario zabalago batean pentsatzekotan, kontuan hartu beharko genituzke hurrengo datu orokorrak: ia munduko hizkuntza guztiek gutxienez hiru bokal dituzte, normalean /i/, /a/, /u/, arabiera klasikoak bezala. Oso hizkuntza gutxik dute hiru baino bokal gutxiago: adibidez, zirkasierak bi baino ez omen ditu: /ə/ and /a/. Beste muturrean, oso hizkuntza gutxik dituzte hamar bokal baino gehiago. Hizkuntza germanikoek inbentario handienetako bat dute: daniera estandarrak 27 bokal ditu, esate baterako. Mon-khmer hizkuntzek ere inbentario handia dute, esan dugunez: vietnamerak hamaika (/i e ε v a ə ɔ ɾ o u u/), adibidez. Dirudienez, zazpiko inbentarioa

<sup>13</sup> Goranzko azentuan azentudun silabaren ondoko silabak tonu altuagoa du azentudunak baino; beheranzkoan, aldiz, azentudunak tonu altuagoa du aurrekoak baino.

<sup>14</sup> Etxeparek bakarrik lekukotzen duen adizkia.

<sup>15</sup> Gero aldeztuko dugu funtsean “aditz-multzoak” izan zirela (ik. § 4.2).

zabalduenetako bat da. Zenbat bokal, bada, AEZk? Zazpi? Hamaika? Hamabost? Ez jakin.

Kontsonanteei dagokienez badugu zeresanen bat, ordea. Mitxelenaren sistemak hamasei kontsonante ditu: bost herskari (*b, d, g, t, k*), sei ozen (*n, N, l, L, r, R*), lau txistukari (*s, ts, z, tz*) eta hasperena (*h*). Alabaina, dakigunez, sistema honetan sortzen diren indartsu/ahul oposaketak bokal arteko testuinguruan bakarrik gauzaten dira, gainerakoetan neutraltzen diren bitartean.<sup>16</sup> Gauzak horrela, CVC erro kanonikoa duen hizkuntza batek ez du inolako aukerarik oposaketetarako testuinguru egoki bakarra — bokal artekoa — gerta dadin (\*\*VCV), C guztiak edo hasieran edo bukaeran baititu.

Berreraiketaren hatsarre nagusietako bat hauxe da: ez berreraiki beharrezkotzat jo ezin daitekeen ezer. Hatsarre honek behartu du Lakarra, bada, AEZren C inbentarioa AEBrena baino anitzez murriztagoa zela proposatzera, hamaikakoa, zeren eta oposaketa gertatzeko testuintururik ez izanik, oposaketak berak ez baitauka inolako zentzurik:

<i>t<sup>h</sup>, k<sup>h</sup></i> ahoskabe hasperendun
<i>b, d, g</i> ahoskabe soilak <sup>17</sup>
<i>s, ṣ</i> txistukariak
<i>l, n, r</i> ozenak
<i>h</i> laringala

Eta, orduan, nola sortu ziren indartsuak?

### 3.4.2. Neutraltzeak eta C indartsuen sorrera

Lakarrak abian jarritako bidetik landu du berriki Begiristainek (2015) gure gaia, alegia, AEZren sisteman bortitz/ahul oposaketarik ez bazegoen, nola sortu ote dira indartsuak?

Lehenik eta behin, herskarietan hitz hasierako bortitz/ahul oposaketa ez zen galdu neutraltze bategatik (hots, X eta Y kontsonanteak bat egin zirelako), baizik eta indartsua herskarien sailetik desagertu zelako ([x-] > [h-]) eta, beraz, herskarietan ahulek bakarrik iraun zutelako posizio horretan.

Bigarrenik, “indartsu/ahul” oposaketa, fonologia mailan Mitxelenak hain argiro ezarri zuena, fonetika mailan oso oposaketa ezberdinetan islatzen da: hasperena herskarietan, luzera ozenetan eta afrikatuetakoa hersketa txistukarietan. Gogoeta honen ondorioa da “indartsu/ahul” oposaketa oso orokorra dela sakonean zer gertatu zen ulertzeko.

Hirugarrenik, hitz bukaerako neutraltzeek berankorrak dirudite. Dakigunez, Artiagoitiak herskarien neutraltzeen berankortasuna frogatu zuen. Euskara historikoan r/R eta txistukarienak bakarrik azter daitezke, ez sudurkariena (n/N), ezta albokariena (l/L) ere. Dardarkarien neutraltzea berankorra dela Mitxelenak ere ikusi zuen, zeren eta hitz gutxi batzuetan (*ura / urra*, adibidez; Iparraldean ere *haur, hirur, laur...* cf. gure *hiruretan, lauretan...*) oraindik lehengo oposaketa igartzen baita. Kontua da

<sup>16</sup> Hasieran (b, d, g, l, n, s, z), bukaeran (t, k, L, N, R, ts, tz), ozen ondoren (ts, tz), txistukari ondoren (p, t, k), etab.

<sup>17</sup> Herskarietan ez zegoen ahostun/ahoskabe oposaketarik, baizik eta bi hasperendunak ziratekeen eta beste hirurak hasperengabeak, hasperena duten hizkuntzetan hitz hasieran (C hauek ager zitezkeen leku bakarra: gogoratu Artiagoitiaren \*-T debekua) ohikoa denez.

txistukarietan ere berankortasunaren zantzuak ditugula, oraindik bai baititugu agerian oposaketa bizirik zen garaiko formak:

*gatz / gaz-i, orratz / orraz-i, hauts / haus-i...*

*ugatz / ugazama...*

*balitz / lizate(ke)* (cf. *i-zan* erroa; XVII. mendean oraindik *lizate-* dute Etxeberri Ziburukoak eta Axularrek, adibidez)

Jakina, antzinako forma zein zen jakiteko bokal arteko testuingurura begiratu behar dugu, testuinguru honetan bakarrik mantendu delako indartsu/ahul oposaketa: beraz, *gazi*-k ematen digu jatorrizko formaren berri, txistukaria bokal artean dagoelako: *z* izan zein *tz* izan, hortxe agertzen zaigu zena zen bezala. Hitz bukaeran, berriz, berdin zaigu antzina *z* izan zen edo *tz*, biak bat egin baitira neutraltzearen eraginez: beraz, *gatz-*etik bakarrik abiatuko bagina ez genuke sekula asmatuko antzinako txistukaria frikaria ala afrikatua zen.

Laugarrenik, bukaerako neutraltze hauen aldean, hasierakoek oso zaharrak dirudite, ez baitugu inolaz ere berreraikitzerik hitz hasieran indartsua ala ahula zegoen: euskara historikoko formetan (fonosinbolismoak eta maileguak alde batera utzita) hitz hasieran txistukari frikariak baino ez ditugu, *sats* eta *zotz* gure betiko adibideek erakusten digutenez. Areago, *zeru* bezalako hitzei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu (a) ez dela latin garaikoa (lat. *coelu* /kelu/), zeren eta orduan *\*\*geru* bailitzateke; (b) *l > r* aldaketa gertatu denez gero, erromantze goiztar garaikoa dugu, bai, baina orduan errom. *\*tzelu* /tselu/-tik datorke: zergatik ez daukagu *tzeru*, baldin eta euskarak /ts/ bazuen?

Begiristainen ondorioa, Lakarraren hipotesiarekin bat, hauxe da: hitz hasieran ez dagoela neutraltzerik, baizik eta C sail bakarra: txistukariez den bezainbatean, *sVC* edo *zVC* izango genuen beti AEZn (gure adibideetan: *saC*, *zoC*), eta berdin beste sailetan: *nVC*, *IVC*, etab.

Eta orduan, bortitzak nola sortu ziren? Monosilabismotik bisilabismorako igarobideari begiratu behar zaio honetan, aurrizkibera izatetik atzizkibera izatera igaro izanari ere, eta morfologiari, ez bakarrik fonologiari. Izan ere, nabarmena da “eskuinak” C taldeak sorrarazi zituela:

CVC + CVC > CVCCVC *harbel* (hitz elkartua)

CVC + -CV > CVCCV *\*hez-le > erle* (cf. *ezti*) (hitz eratorria)

Gure bi adibideotan C taldeek iraun dute, edo bere horretan (*-rb-*), edo aldatuta (*-zl-* > *-rl-*), baina ziurrenik ez da hau gertatu horrelako guztietan; izan ere, etimologia multzo batek erakusten digu oso litekeena dela C talde batzuek bortitzak sortu izana:

CVC + -CV 1+1 > L *\*bel-le > bele* (*\*\*bere*)

n + n > N *\*arran-no > arrano* (*\*\*arraho*)

z + s > ts *\*hortz-so*<sup>18</sup> > *\*hohtz-so* > *\*ohtso* > *otso*  
*\*hatz-so* > *\*hatso* > *atso*

Honezkero, bada, hiru urrats bereizteko paradan gaude:

<sup>18</sup> Hala Lakarrak nola Begiristainek honela adierazten dituzte etimologiok (hau da, *-tz-z*), baina ulertu behar dugu *hortz* eta *hatz* gaurko hitzak agerian jartzeko baino ez dutela egiten, zeren eta, goraxeago ikusi bezala, bortitzik ez bailegoke AEZean eta, hortaz, orduan *\*horz* eta *\*haz* izango ziren hitzok. Gainerakoan (*FHV*-n ikus daitekeenez) ‘bizkarkaria + apikaria’ taldearen emaitza beti apikaria da.

1. AEZ monosilabikoa, non C sail bakarra legokeen (\**sas* eta \**zoz*)
2. AEB bisilabismorantz zihoana, non hitz barruko bortitzak sortuko baitziren C taldeetatik abiatuta (\**beLe*, *otso*)
3. AEB oso berankor bat (edo agian gugandik hurbilago legokeen beste garairen bat), non hitz bukaerara ere hedatu baitziren C bortitzak, fortizio (hots, indartze) prozesu batez (*sats*, *zotz*, *indaR*, *gogoR*...).

### 3.5. Euskarak adjektiboak betidanik?

Euskara historikoak hamaika adjektibo ditu, hurbilen ditugun hizkuntzek bezalaxe (gaztelaniak, frantsesak, ingelesak...): *Refranes y Sentencias*-ek (1596) baino hizkuntza arkaikoagoa duen testurik nekez aurkituko dugu, eta bertan *aberats*, *adardun*, *adinon*, *andi*, *andur*, *anker*, *argi*, *arin*, *asti*, *atsaputz* eta *azarri*, hamaika adjektibo daude A letran bakarrik begiratu. Hala eta guztiz ere, Azkuek (1923-1925: § 618) jadanik azpimarratu zuen euskal hitz zenbaitek “berez” izen-izenondo balioak dituztela: *argi*, *bero*, *itzal*, *otz* eta *atsegin*, adibidez. Mitxelenaren ustez (1964a: 56 eta 1977a: 512) honek adieraziko luke antzina euskararen izenaren eta izenondoaren arteko mugak orain baino askoz nasaiagoak zirela, geratu zaizkigun hamaika “behar biko” itemak —de Rijk-ek (1995: 77) erabilitako berba euskaratuaz— lekuko.

Lakarra (1995b: 192, 2. oh.) aitzinago iritsi da, AE-n morfologikoki bereiz zitekeen “izenondo” kategoriarik ez zegoela argudiatuaz, Amerika, Afrika eta Australiako hainbat hizkuntzatan bezalaxe. Hau nola izan litekeen ulertzeko, munduko hizkuntzetara itzuli behar ditugu begiak.

Muturreko bi taldetan banatuko bagenitu munduko hizkuntzak adjektiboari dagokionez, mutur batean genituzke euskara historikoa, gaztelania eta ingelesa bezalako hizkuntzak, adjektibo kategorია garbi eta zabalak dituztenak. Hizkuntza hauetan adjektibo kategorია, gainera, irekia da: ez dago inolako arazorik adjektibo berriak egiteko, esate baterako atzizkien bidez (-*ti*, -*tsu*, etab.). Beste muturrean daude itxuraz adjektibo kategoriarik ez duten hizkuntzak eta, batez ere, adjektibo oso gutxi dituztenak. Ikus dezagun adibide bat. Hausa hizkuntzan<sup>19</sup> hamabi bat adjektibo baino ez daude; honako hauek (Dixon 1982: 4):

<i>babba</i> ‘handia’	<i>qarami</i> ‘txikia’
	<i>qanqane</i> ‘txikia’
<i>dogo</i> ‘luzea, altua’	<i>gajere</i> ‘laburra’
<i>danye</i> ‘freskoa, gordina, umotugabea’	
<i>sabo</i> ‘berria’	<i>tsofo</i> ‘zaharra’
<i>baqi</i> ‘beltza’	<i>fari</i> ‘zuria’
<i>ja</i> ‘gorria’	
<i>mugu</i> ‘txarra’	

Hausan bertan ikus daitekeenez, oso adjektibo gutxi dituzten hizkuntzek gutxi horiek antonimo bikotetan agertzeko joera dutela erakutsi zuen Dixonek, eta hizkuntzok adjektibo mota berberak izateko joera dutela. Hausak baino are adjektibo gutxiago duen igbo hizkuntzan (Nigeria) bikote hauek baino ez ditugu:

‘handi’ / ‘txiki’  
 ‘berri’ / ‘zahar’  
 ‘on’ / ‘txar’  
 ‘beltz, ilun’ / ‘zuri, argi’

<sup>19</sup> “Hausa hizkuntza Mendebaldeko Afrikan, batez ere [Nigerian](#) eta [Nigeren](#) bizi den [hausu etniak](#) hitz egiten duena” (*Wikipedia*).

Hausa eta igboaren adibideetan egiazta daitekeenez, “adjektibo mota berak izateko joera dutela” diogunean esan nahi dugu denak ere oinarritzko lau alor semantikotan sailkatzeak direla:

1. dimentsioa: ‘handi’, ‘txiki’, ‘luze’, ‘altu’, ‘labur’, ‘sakon’, ‘zabal’...
2. adina: ‘zahar’, ‘berri’, ‘gazte’
3. balioa: ‘on’, ‘txar’, ‘maitagarri’, ‘jasanezin’, ‘bikain’, ‘egoki’...
4. kolorea: ‘zuri’, ‘beltz’, ‘gorri’...

Honek esan nahi du Dixonek adjektibotasunean hierarkia bat ezarri duela: hizkuntza batek adjektiboak izatekotan gutxienez hauek izango ditu; aukerakoa izango da, berriz, bestelakoak izatea, hala nola ‘ezaugarri fisikoak’ (*lodi, argal...*), ‘gizakien joerak’ (*lotsati, zoriontsu...*), ‘abiadura’ (*arin, geldo...*), etab.

Erraz antzeman daiteke goiko adibideetan —agian *on* izan ezik (< *hon*;<sup>20</sup> cf. *txar* < *zahar*, *tx-* adierazgarri horrekin)— ez dagoela bakar bat CVC denik, baizik eta silaba bikoak (CVCCC, CVCV, CVCVC...) eta are luzeagoak ere. Ondorioz, ez dago AEZean ziurtasunez koka dezakegun adjektiborik.

Dixon-ek erakutsi zuen adjektibo gabeko edo gutxiko hizkuntza batzuk historian zehar adjektibo klasea sortzen edota ugaltzen joan direla, eta adjektiboak ugaltzeko lau bideak ere zehaztu zituen. Lakarrak euskara ere antzina halako hizkuntza bat izan bide zela erakusteko, lau bideok aurkitu ditu euskaraz goian aipatu lau alor semantiko oinarritzko horietatik koloreak erabiliz:

1. eratorriak: *bel-tz*
2. partizipioak: *gorr-i, zur-i, hor-i*
3. erlatibozkoak: *urdin*<sup>21</sup>
4. maileguak: *berde, marroi...*

Igbok *zuri* eta *beltz* baino ez ditu, eta hausak *zuri, beltz* eta *gorri*. Hiru kolore oinarritzkoago hauek ere euskaraz ez dira CVC, ikusi berri dugun bezala [CVC-atzizkia] egiturakoak baizik hirurak.<sup>22</sup>

Beste kontu bat da ea guk adjektiboaren bidez adierazten duguna hizkuntza guztietan ere adjektiboaren bidez emango den. Erantzuna ezezkoa da: adibidez, ‘handi’ adierako adjektibo baten ordeztu, hizkuntza batzuek (txinera estandarrek eta japonierak, kasu) ‘handia izan’ adiera duen aditzaren bitartez eratutako aditz atributibo egiturak erabiltzen dituzte: *etxe handia*-ren ordeztu “handi izaten etxea” bezalako zerbait. Hizkuntza hauetan, adjektiboa aditz kategoriaren azpian sartzen da, bada. Adibidez, japonieraz *aoi* ‘urdina’ gehiago da aditz horietako bat, adjektibo bat baino:

*Sora (ga) aoi*. ‘Zerua **urdina da**’

*Aoi sora* ‘Zeru **urdina**’

<sup>20</sup> Akitanierazko BON erroarekin lotu izan da (ik. 6. gaia) eta, horrela balitz, lat. BONUS esanahi berekoarekin lot litekeenez, mailegutzak azalduko luke.

<sup>21</sup> Orain ez genuke erlatibozkotzat joko, baina honetaz ziharduen garaian Lakarrak Mitxelenaren inperpretazioari heldu zion: gaur \**hur-din* CVC-CVC bi erroren elkartutzat eman beharko genuke (*ubel* ere bai, ziurrenik: \**hur-bel*). Dena dela, honek ez du aldatzen ondorio nagusia: euskaraz koloreen izenak edo maileguak dira edo, ondare zaharrekoak izatekotan, hitz konplexuak (eratorri zein elkartuak).

<sup>22</sup> Bideabar, ohartu zenbat eta kolore gehiago bereizten goazen, hainbat eta mailegu gehiago sartzen doazela gure hizkuntzan (*bioleta, purpura, magenta, fuchsia...*).

Japonieraz honelako aditzak jokatu egiten dira: aditzak ez dauka pertsona-komunztadurarik, baina bai denbora eta aspektuarenak (hots, “urdina zen” edota “urdina izango da” bezalako zerbait ere adierazi ahalko dute aditz horrekin).

Adjektiboaren falta ez da anekdotikoa tipologiaren ikuspegitik. Euskara Arkaikoa eta Zaharrean bakanka, arkaismo gisa agertzen da [X-ekin /-gaz Y-Dek.M.] egitura, “X-Dek.M.<sub>1</sub> eta Y-Dek.M.<sub>1</sub>”, baita [X Y-ekin/-gaz] aldaera ere:

RS 246 (1596) *Oguiagaz hura, oragaz heroen elicatura* “pan con agua, mantenimiento de loco y mastín”.

Larramendi (1745, *HH*, s.v.) “Siroco: viento de entre Levante y mediodía. *Sortaldearequin eguardiaren bitarteco aice bat*”.

Urthubiako *Alhaba* (28-29) *Jauna, othoi indazu amaren bizia; / amaren biziarekin aitaren libertatia*.

Lazarraga (1175v): *Arren choriac exilic çaoz / badoçu miramenturic / mundu guztia ysasoagaz / nançucu, çaoz gueldiric* ‘Arren, txoriak, zaudete ixilik, baduzu miramenturik; mundu guztia eta itsasoa, entzun nazazue, zaudete geldirik’.

Honek “With-language” —“-kin hizkuntza”— bihurtzen du (aitzin)euskara, hots, koordinazioa sozietiboarekin egiten duten munduko hizkuntzen taldekoa. Hain zuzen ere, “With-language” direlakoak aztertzerakoan Stassen-ek (2000) ikusi du horietako aditzak “nontensed” izan ohi direla (denbora-markarik gabekoak) —gorago, \**da(r)-thor*-eta berreraiki ditugunean ikusi dugu aitzineuskara ere halakoxea zatekeela—, eta baita hizkuntza hauetan adjektiboak ez direla sail aske bat izan ohi, aditzaren azpisail bat baizik.

Dakusgunez, froga frogaren gainean pilatzen ari da esateko AEZren egitura ez zela inolaz ere historikoki aurkitzen duguna eta “betidanikotzat” eman izan dena.

## 4. Gramatikalizazioa

Gramatikalizazioaz hitz egiten dugu morfema lexiko batek funtzio gramatikalak hartzen dituen edo jadanik gramatikala dena are gramatikalago bihurtzen denean. Honek esan nahi du gramatikalizazioan mailakatze bat dagoela, gramatikala ez denetik erabat gramatikala baino ez denera bitartean, gramatikalizazio bideak luze eta korapilatsuak izan baitaitezke; beraz, honen ondorioz, hizkuntz egoera batean gramatikalizazio maila ezberdinetan dauden elementuak aurkitzen ditugu. Adibidez, euskaraz *egin* aditzak gaur ere baditu bere izaera lexikoari dagozkion erabilera arruntak (adib. *Azterketa egin dut*), baina aldi berean, Mendebaldeko euskararen alderdi zabal batean gramatikalizatuta ere badago, ezagunena den *leike* forma horrek adierazten digunez: adib. *Zer esan leike?* [partizipioa + *egin*-en adizkia + *-ke*] ahalerazko perifrasiari. Perifrasiari aurkitzen ditugun beste aditz batzuk, berriz, *egin* baino gramatikalizatuago daude egun: \**edin* (*sar daiteke*, *sar dadin*, *sar zaitetz* perifrasiari agertzen den aditz laguntzailea) zein esanahi lexiko zeukan ez daki gaurko euskaldunak; hala eta guztiz ere, Euskara Arkaikoko testuetan (1600. urtea baino lehenagokoetan) oraindik gorde zuen bere lehengo esanahia, ‘bihurtu, bilakatu’, Leizarragaren *Krist gizon zedin* ‘gizon egin zen’ adibideak erakusten duenez.

Gramatikalizatzen direnean morfema lexikoek, bada, lehen zeukaten esanahi lexikoa galtzen dute neurri batean edo bestean, gramatika-funtzioak hartu ahala. Aldi berean, fonetika-kamustea ere pairatzen dute: gorago ipini dugun adibidera itzulitza, are -CV formako atzizki zaharretako batzuk (-*da*, -*za*, -*ga*...) -C bihurtu dira denborarekin: -*da* > -*t* (*dudala/dut*), -*za* > -*z* (*dabiltza* vs. *dabilz*, *dabiz*), -*ga* > -*k* pluralgilea, etab.

Gramatikalizazioen azterketa aspaldikoa bada ere, azkenotan askozaz garrantzi gehiago eman zaio, hizkuntzek erabiltzen dituzten gramatikalizazio bideak berak edo bertsuak direla sumatu denetik —giza-burmuinak non-nahi era bertsu lan egiten duelako seinale— eta, honegatik, gramatikalizazio bideen bildumak kaleratu direnetik (cf. Heine & Kuteva 2002, *World Lexicon of Grammaticalization*). Zer dakarkio gramatikalizazioak berreraiketari? Etimologientzako motibazioak aurkitzen laguntzen dio —beste hizkuntzetako paraleloak, zehazki—, hots, honek ere oztopatzen du proposatzen diren etimologiak nolana hikoak izan daitezen, alirizikoak.

Euskarari badira hamaika gramatikalizazio nabarmen —nabarmenago eta modernoago izango dira, jakina—: goian aipatu ditugun aditzak eta eurak bezalako gehiago (\**edun*, \**iron*, \**ezan*, nagusiki) perifrasiaren baten laguntzaile bihurtu dira. Hizkuntza askotan lekukotu da “3. graduko erakuslea > artikulua” gramatikalizazioa ere (eus. \**har* > -*a*), eta bide honetatik azaldu dira hainbat gramatika-partikula, hala nola ahaleran baliatzen ditugun *ahal* eta *ezin* (berez izenkiak), galderetako *al* (< *ahal*) eta *ba*-baiezkoa (< *bai*).

Atal honetan, ordea, gramatikalizazio zaharrago batzuek hitz egingo dugu, euskara historikoa aztertuz berreraiki ditzakegun antzinako aurrizki eta atzizkiez, hain zuzen. Honetarako, lehenengo erakutsiko dugu nolatan euskarak antzina aurrizkiak (ere) bazituen, eta zein diren horietako batzuk. Eta, ondoren, hizki horietako batzuen jatorria aditz-multzoetan egon daitekeela ikusiko dugu, bai eta antzinako aditz erroen gramatikalizaziotik datozkeela gaurko hainbat atzizki eta lehenagoko hainbat aurrizki ere, ausaz.

#### 4.1. Aurrizkiak eta atzizkiak

Ezaguna da atzizkiak aurrizkiak baino usuago aurkitzen direla munduko hizkuntzetan, eta aurrizkiak gainerako hizkiak (artzizkiak, inguru-hizkiak, etab.)<sup>23</sup> baino usuago. Aurrizki eta atzizkien banaketan sumatzen dugun asimetria hau, “atzizki zaletasuna” (ing. “suffixing preference”) dei genezakeena, tipologikoki esanguratsu diren bi parametroekin lotu da: “preposizioak vs. postposizioak” eta “VO vs. OV” parametroekin, alegia. Hurrengo taulan ikus daitezke korrelazioaren ondorioak:

	aurrizkiak	atzizkiak
VO/Pr	x	x
OV/Po	∅	x

(Hawkins/Gilligan 1988: 219, ap. Grandi & Montermini 2005: 1)

Euskara historikoa hein handi batean OV hizkuntza izanik (gogoratu seinalatu ditugun asimetriak; § 3.2), ondo dagokio atzizkiak ugari izatea, nahiz aurrizki emankor gutxi batzuk —gehienak mailegu edo kalko— izan badituen: *des-*, *ber-/bir-*, etab.

Orain arte ikusi dugunaren arabera, arrazoi nagusi bi ditugu euskara zaharrago batek aurrizkiak (ere) izan zituela pentsatzeko:

1. Azterketa morfologiko lainoenak ere agerian jartzen du aditz zaharretan erroaren aurreko “animalia” txiki batzuk ditugula, batez ere \**e-* ezaguna, \**e-toR-i* zein \**e-ra-kaR-i-n* erraz antzeman daitekeena. Hau eta honelakoak aurrizkiak baino

<sup>23</sup> “A **circumfix** [inguru-hizkia] is an affix which has two parts, one placed at the start of a word, and the other at the end” (*Wikipedia*).

ezin dira izan, orain arte deitura horrekin gutxitan aipatu badira ere, aurrizkiak definizioz erroaren aurreko hizkiak baitira, izan.

2. Tipologia konparatuaren arabera, VO hizkuntzari dagokiokeen ezaugarria litzateke aurrizkiak (ere) izatea (cf. goiko taula).

Azken batean, esaten ari garena da deribaren teoriak aurrizki emankor sistema bat aurreikusten duela euskararen antzinagoko egoera batean, eta horren zantzuak badirela euskara historikoan, aditzean behinik behin. Hau hala izanik, antzinako aurrizki horiek ediren eta zedarrizterik ba ote dagoen izango litzateke berreraikitzaileak bere buruari egingo liokeen hurrengo galdera. Helburuak ez dira bat, bi baizik: aurrizkiak identifikatzea eta beren funtzioa zehaztea; lehenengoa lortzeko, haien banaketari eta formari helduko diegu (analisi konbinatorioa eta formala, hurrenez hurren), eta zailagoa den bigarren helburua lortzeko, aldiz, gramatikalizazioari baino ezin heldu ziurtasunez (bigarren honetarako, ik. § 4.2).

Lakarraren azterketa bi norabidetan joan da, alde batetik izenkiak (izen-izenondoak) eta bestetik aditzak aintzat harturik. Izenkiei dagokienez, CVCVC erro ugari xamarretan jarri ditu begiak lehenik. Bi aukera daude honelakoak azaltzeko erro monosilabikoaren teoriaren arabera:

- CV(C) erroa + CVC erroa (elkartuak)
- CV- aurrizkia + CVC erroa (eratorriak)

Aspaldiko lanetan (Lakarra 1998a, Gorrotxategi & Lakarra 2001, adib.) [erroa + erroa] modura azaltzeko tentazioa izan bazuen ere, beranduago ondoko xehetasun hauek hartu zituen gogoan aurrizkitzat emateko: erroaren ezkerretara aurkitutako osagaiek ez dute berezko semantikarik, ezin joan litezke soilik (ez dute autonomiarik) eta ezin ager litezke erro ezagunen eskubitara ere. Beraz, ezin esan lehen CVC osoak eta beteak izan zirela, eta ondoren eskubiko C galdu egin zutela AE-n, horrelako fenomenoak ez hor eta ez akitanieran ez baitira jazotzen, mila bat urte beranduago baizen, Erdi Aroan zehazki. Erroen ezkerretara baino ezin ager litezkeen elementu gramatikalizatuak ez dira erroak, jakina, aurrizkiak baizik.

Bakunkiago esanda, erroak zirelako ustea baztertu zuen, bai lehen CVC-ko azken C galdu izana azaltzeko motibo ezagatik (cf. CVCCVC ugariak: *beldur*, *malkar*, *susper(tu)*, *bizkar*...), baita, eta batez ere, CV- izango litzatekeelako CVC hizkuntza batean aurrizkiek hartzea esperoko genukeen forma: izan ere, gramatika hizkiek betiere erro kanonikoaz bestelako forma dute, jadanik azaldu bezala: *eta* eta *edo* CVC erroaren ispiluko forma dute (VCV) eta gure atzizki zaharrenak izateko itxura gehien dutenak -CV (-*da*, -*gu*, -*za*...).

Gauzak honela, CVCVC erroak elkarrekin konparatuz, behin baino gehiagotan agertzen ziren hizkiak bereizi zituen, eta aurrizkiak izan litezkeela iradoki. Ondoko hauek, besteak beste:

*sa-	sabel, samin
*da-	labur, labar (* <i>d</i> > <i>l</i> / # — gogoan hartuta)
*gi-	gizen, gihar, gizon
*za-	zabar, zabal

Honelakoak, pentsatu behar dugu AEMaren hasieran edo —AE bisilabiko bihurtzen hasi zenean—hitz eratorriak zirela, baina denborarekin lexikalizatu<sup>24</sup> egin direla, hots, noizbait aurrizkia emankor izateari utzi eta, ondorioz, hiztunentzat [aurrizkia + CVC] egitura gardena izatetik iluna izatera pasatu dela, ezin zatikatuzkoa.

Edonola ere, lexikalizatzea AEMaren azkenerantz gertatu bide zen, beranduago ez bada, aurrizki haietako batzuk behintzat atzizki modura ere aurkitzen baititugu euskara historikoan:

-gi/-ki	ebagi/ebaki
-za	dabil-za
-da/-t	duda(la)/dut

Beste era batera esanda, AE “atzizkizaleago” bihurtuz zihoan heinean, badirudi emankor izandako aurrizkiak —oraindik ere hiztunentzat nola edo hala gardenak izanik— atzizki modura erabiltzen hasi zirela, ziurrenik ez adiera berarekin, gure adibide garbienen arabera beste funtzio gramatikalago batekin baizik: plurala (-za) eta 1. pertsona (-da). Hau da, euskara historikoan antzinako aurrizki haiek AEn zirena baino are gramatikalizatuago aurkitzen ditugu, hipotesi honen arabera. Adibide erdi-asmatu batekin errazago ulertuko dugu: pluralgileak ez da ezohikoa talde-adiera edo adiera kolektiboa duten izenen gramatikalizazioak izatea; ildo honetatik, irudika dezakegu za-aurrizkia ‘taldea’ edo ‘asko’ edo antzeko adiera bat zukeen zaC CVC erro baten gramatikalizazioa zela (cf. *zabal*, kasu), eta hortik heldu zela -za atzizkia lehenik ‘taldea’ edo ‘asko’ adiera izatera (cf. *elurtza*, *dirutza*, etab., gehi *Elorza* bezalako leku-izen edo deiturak), eta gero azkenik pluralgile gisa gehiago gramatikalizatzeraz.

Aditzei dagokienez, berriz, lehendik ezaguna zen \*e- aurrizki misteriotsuaz landa, Lakarrak beste bi aurrizki jarri zituen agerian, eta aurrizki bion arteko konbinazioaren ondorioak ere. Nola egin zuen ulertzeko, Mitxelenaren berreraiketarik abiatu beharrak gara. Izan ere, berak aise berreraiki zuen \*e- euskara historikoan j-z hasten diren aditz zaharretan:

Mitxelena: jVC < \*e-VC

jan < *e-an	VC
jakin < *e-akin	VCVC
josi < *e-os-i	VC
jarri < *e-arr-i	VC
jausi < *e-aus-i	VVC
jarrain < *e-arrain	VCVVC
jaurti < *e-aurti	VVCCV
...	

Erro monosilabikoaren teoriaren arabera, Mitxelenaren berreraiketaren eskuineko ondorioak onartezinak dira, berriro ere aditz erro anabasa “heteroklito” batekin egin baitugu topo. Lakarrak anabasa hori CVC erara ulertzekotan eman zuen lehenengo urratsa aditz hauek sistematikoki \*e-V hasiera zutela ohartzea izan zen (hain zuzen hasiera honek eragin zuen \*e > j aldaketa), eta teoriak hasiera horretan C- egotea eskatzen duela. Bokal arteko kontsonanterik galkorrena d izanik, ondoko berreraiketa egin zuen:

**Lakarra (1): jVC < \*e-VC < \*e-dVC**

jakin < *e-dakin
------------------

<sup>24</sup> Lexikalizatzea, hemen erabiltzen dugun adiera zehatzean, honela definitzen da: “the treatment of a formerly freely composed, grammatically regular, and semantically transparent phrase or inflected form as a formally or semantically idiomatic expression” (*Merriam-Webster dictionary*).

josi < \*e-dos-i  
jarri < \*e-darr-i

Honek aditz hauek eta antzekoak erro teoriaren barruan ederto azaldu arren (\*e-VCV-i baitira guztiak, *jakin* izan ezik), ez zituen halako guztiak azaltzen, ezta hurrik eman ere. Bigarren urratsa, bada, aditzetako batzuek morfologia konplexuagoa zutela suposatzea izan zen, zehazki *\*da* aurrizkia:

**Lakarra (2): \*da-dVC**

jan < jaan < \*e-aan < \*e-a-dan < \*e-da-dan (vs. edan < \*e-dan)

jausi < \*e-aus-i < \*e-a-dus-i < \*e-da-dus-i

Adibideetan ikus daitekeenez, galtzekotan lehenik galtzen dena bokal arteko *\*da* aurrizkiaren *d* da, eta ondoren errokoa, gorago esan dugunagatik, alegia, gramatikalizatutako formek (kasu honetan, aurrizkiek) masa fonikoa galtzeko joera dutelako.

*\*da-* aurrizkitzat eman eta gero, harekin jokatzeko hasi zan. Izan ere, litekeena da hitz hasieran *la-* eta hitz bukaeran *-ra* gisa agertzen den bera izatea, baldin eta ondo ezagutzen ditugun bi hots-aldaketa gogoratzen baditugu:

*\*d > l / # — \*da- > la-*

*l > r / V — V \*la > -ra*

Baina hau hurbilketa formal bat baino ez da (formaren aldetik litekeena): *\*da*-ren balio zehatza asmatzekotan eta horietan guztietan *\*da* hizki bera dugun ala ez ziurtatzekotan, esan bezala, gramatikalizaziora jo behar eta hori hurrengo atalean egingo dugu (§ 4.2).

Hori baino lehen, ordea, *\*d* galduarekin eta *\*da* aurrizkiarekin ere azal ezin zitezkeen aditzak azaltzeko, lehendik ezaguna zen beste hizki batera itzuli zen Lakarra: *ra-ra*. Euskara historikoan oraindik ere gardena den hizkia dugu (aditz arazleak egiteko balio duela esango genuke hurbilketa laino batean), baina fosilduta dago: aspaldiko partez ez dugu berarekin aditz gehiago sortu, *arazi* eta haren aldaerek (*erazo*, *erazi*, etab.) edota *eragin* ordezkatu baitute funtzio horretan (*eginarazi*, *hartu eragin...*):

e-karr-i	e-ra-karr-i
e-kus-i	e-ra-kuts-i
e-man	e-ra-man

Lakarrak hainbat aditz gehiago azaldu ditu berarekin (bai eta are ilunagoak diren *\*ardano* bezalako beste formazio batzuk ere):

**Lakarra (3): \*e-da-ra-CVC**

jardun < \*e-da-ra-dun

jarrain < \*e-da-ra-din

inarrosi < \*e-da-ra-non-tz-i

\*ardano < \*e-da-ra-dan-o

Esan gabe doa honetarako hitz barnean gertatutako hainbat hots-aldaketa zehaztu behar izan dituela, orain alde batera utziko ditugunak. Erreparatu bereziki *\*ardano*-ren berreraiketari: garai batean mailegutzat izan zuen Lakarrak (cf. gazt. *arándano*), baina bide honetatik *edan*-en dugun *\*dan* CVC erro bera aurkitzea abantaila handitzat eman behar dugu.

## 4.2. Hizkuntza morfosilabikoak, aditz-multzoak eta gramatikalizazioa

Hizkuntza morfosilabikoak (Light 1978) Hego-ekialdeko Asian<sup>25</sup> aurkitzen dira gehienbat. Post-ek (2006) azaldu bezala, hizkuntza morfosilabiko tipikoetan silaba, morfema eta hitza bat dira (silaba = morfema = hitza). Hizkuntza hauetan nekez aurkitzen da erabat gramatikalizatutako ezer, eta hizki bidezko morfologia oro har urria da; honen orde, maizenik gramatika funtzioak hitz lexikoen aldaeren bidez kodetuak dira. Ondorioz, gramatika oso analitikoa, oso isolatzailea da, eta aditz-multzoak (ing. *serial verbs*) ugari eta gardenak. Bidenabar, hizkuntzok sarritan tonoa ere badituzte, eta ohikoa da aldi berean fonema sistema bakuna edo bakuntzen doana izatea, bai eta silaba egitura kanoniko bakuna ere.

Aditz-multzoak bi aditz edo gehiagoz egon daitezke osatuta; normalean ez dago hizki edo konjuntzio bidezko markarik, aditzetako bat bestearen mendekoa edo dela adierazten duenik. Aditz-multzoek elkarrekin oso lotuta dauden ekintzak adierazten dituzte, gertakari beraren zatitzat har daitezkeenak. Ikus dezagun tai estandarreko ondoko adibidea:

- (1) T (khǎw)...ko<sup>^</sup> piin klàp khiñ paj kèp tɔɔ  
 SFOC [climb return ascend] [go collect continue]  
 ‘So, (he) climbed back up and continued picking (pears)’  
 ‘Beraz, (berak) berriro igo zuen eta (madariak) biltzen jarraitu zuen’

Gure adibidean hitz guztiak morfema bakarrekoak dira, eta morfema bakoitza hitz tonodun, monosilabiko eta fonemen aldetik bakun baten bidez gauzatzen da; berriz, aditz-multzoak oso nabarmenak izateaz gainera, perpausean ez dago agerian beste gramatika-estrategiarik: lehenean “igo-itzuli-igo” aditz-multzoa dugu (*igo* biak tai hizkuntzan hitz ezberdinak dira) ekintzaren errepikapena adierazteko, eta bigarrean “joan-bildu-jarraitu” aditz-multzoa, non *jarraitu*-k euskaraz *irakurtzen jarraitu dut* bezalakoetan duen adiera bera daukan (aspektu jarraikorra, alegia).

Hego-ekialdeko Asian mintzo diren hizkuntza batzuk, ikusi berri dugun tai estandarra bezala, nabarmen morfosilabikoak dira, baina ez guztiak; halere, bertako zenbait hizkuntzaren historia azaltzeko ere horrelako urrats morfosilabiko bat proposatu da, adibidez tani hizkuntzetan.

Aitzintanierak badirudi horrelako arbaso morfosilabiko hurbil bat izan zuela (hots, tibeto-burmera > aitzintaniera morfosilabikoa > tani hizkuntzak). Halere, tani hizkuntza moderno guztiak sintetikoak eta eransleak dira, neurri handiago edo txikiagoan. Aldaketa tipologiko orokor honen alderdietako bat lexikoiaren pixkanakako berregituraketa izan bide zen, alegia, aitzintaniera monosilabismotik bisilabismora aldatu zen, lehenago emankorrek ziren hitz sorbideen arabera sortutako hitz elkartuak eta erro aurrizkidunak lexikalizatuz joan ziren heinean (hau da, hiztunentzat ilun bihurtuz).

Tani hizkuntzetan aditzek atzizkiak dituzte, baina ez dirudi [erroa + erroa] elkarturik dagoenik, ezta aurrizkirik ere. Atzizkiok aditzaren kategoria aldaketa

<sup>25</sup> “**Hego-ekialdeko Asia** Asiako eskualde geografiko eta politikoa da. Eskualdea Txinatik hegoalderantz, Indiatik ekialderantz eta Australiatik iparralderantz dauden herrialdeek osatzen dute” (*Wikipedia*).

(nominalizazioak, adjektibalizazioak), balentzia aldaketa,<sup>26</sup> adberbio-aldaketa (modua, ondorioa, norabidea) eta aspektu aldaketa adierazten dituzte, besteak beste.

Atzizki hauen %40-60a erraz lot daiteke erro lexikoekin (sarri aditz erroekin), bai baitituzte fonema berak eta are tonu bera ere. Adibidez, galo izeneko tani hizkuntzaren benefaktiboa ('norentzat') *-zĩ* atzizkiak adierazten du, eta hau erraz lot daiteke *zĩ-* 'eman' aditzarekin. Hizkuntza berean aurkitzen ez denean, batzuetan familiako beste hizkuntza batean aurkitu dute atzizkia azaltzeko behar dugun erroa: adibidez, mising hizkuntzako *rik-* '(ing.) meet' aditz erroak galo hizkuntzako *-riĕ* 'aplikatiboa'<sup>27</sup> atzizkia azalduko luke.

Adibide honekin iradokitzen ari gara, bistan denez, AEZean aditz-multzoak izan bide zituela eta, azken batean, gaurko aditzetan sumatzen ditugun atzizkiak aditz-multzoaren parte ziren antzinako aditzetatik datozela, haien gramatikalizazioak direla.

Munduko hizkuntzetan gramatikalizatu ohi diren zeren artean aditzak leku nagusi batean daude. Aditzen esanahi lexikoarekin nolabaiteko zerikusia— batzuetan agerikoa eta bestetan ilunagoa— duten gramatikalizazioak izaten dira, jakina. Izan ere, jadanik aurkeztu ditugu gaurko euskaran agerian diren zenbait gramatikalizazio, hala nola *egin* eta *\*edin* aditzenak indikatibotik kanpoko aditz-perifraziak egiteko, bai eta *jarraitu*-rena ere, aspektu jarraikorra adierazteko. Alabaina, gorago adierazi bezala, hauek baino zaharragoak —eta, beraz, ilunagoak— diren gramatikalizazioen bila gabiltza orain, munduko hizkuntzetan gertatu ohi diren gramatikalizazio bideak baliatuz.

Gramatikalizatu ohi diren aditzen artean —gramatikalizazio bildumetan eman ohi zaien ingelesezko izena baliatuz— “sit” ('ja(sa)rri, eseri'), “finish” ('amaitu') eta “give” ('eman') daude, eta hirurak bide berean edo bertsuan gramatikalizatu ohi dira. Bada, hiruren gramatikalizazioaren zantzuak aurkitu ditu Lakarrak (2008b) euskaran:

#### **\*dar 'jarri' > da- adizkietan**

Erroa bere horretan ez dago lekukotua, baina *jarri* < *\*e-daR-i* etimologia horren berme ziur xamarra genuke. Hizkuntza gehiagotan bezala, euskaraz ere gramatikalizazio bidea hauxe izan bide da: *\*dar* 'sit' *da-* → *da-* 'aspektu burutugabea' (Euskara Arkaikoan, 1600 arte) → denbora 'orainaldia' (gaurko euskaran) *da-tor*, *da-kar*, etab.

#### **\*den 'amaitu' > -en adizkietan**

Erro hau *eten*,<sup>28</sup> *atseden*, *lepo*, *edeki* eta *lehen* hitzetarako proposatu den erro bera da. Hauxe da bere bidea: *\*den* 'finish' → 'aspektu burutua' (Euskara Arkaikoan) → denb. 'iragana' (gaurko euskaran).

'Finish' aditza bere semantikagatik multzo-aditzetan azken agertu ohi dela kontuan harturik, lehenaldiko *-en* atzizkiaren jatorria izan daitekeela proposatu du Lakarrak:

*\*thor-den*, *\*khar-den*, *\*bil-den* > *\*thorren*, *\*kharren*, *\*biLen*  
*ze-torren*, *ze-karren*, *ze-bilen*...

cf. RS *engarren* 'ekarri hintuen' (aspektu burutua, vs. *\*\*ekartzen* hintuen', gaurko ulerkera)

<sup>26</sup> Balentzia da aditz predikatuak menderatzen dituen argumentuen kopurua: aditz iragangaitzek argumentu bat hartzen dute, iragankorrek bi, ditransitiboek hiru, etab.

<sup>27</sup> Cf. “The **applicative voice** (abbreviated **APL** or **APPL**) is a grammatical voice that promotes an oblique argument of a verb to the (core) object argument, and indicates the oblique role within the meaning of the verb. When the applicative voice is applied to a verb, its valency may be increased by one” (*Wikipedia*).

<sup>28</sup> *Etete* aditz-izenetik abiatu behar gara *eten* azaltzeko: cf. *epai* vs. *ebagi*, etab.

Horrezaz gain, gogoan har daiteke Mexikoko olultec hizkuntzan ‘finish’ aditzak ‘iragana’ ez ezik ‘3p plurala’ ere adierazten duela. Gauza bera bide dugu euskaraz ere, hortaz:

\*den ‘finish’ → -de ‘3p pl.’ (> -te /-e, testuinguruaren arabera)

dauDE, diraDE

dauDE ‘dute’ (> *daue* > *dabe*)

\*dituz-DE > *dituzte*

### \*nin ‘eman’ → -i datiboa

Oso ohikoa da “give” aditza datibo markatzaile gisa gramatikalizatzea. Izan ere, \*nin Euskal Herri osoan lekukotuak diren *iguзу* ‘emaiguzu’ bezalako aditz trinkoen erroa litzateke. Forma trinko gutxi batzuek erroaren bukaerako *n* ere gorde dute: *indazu* ‘emaidazu’ (Lazarraga, Etxeberri Ziburukoa, Kapanaga, Barrutia, etab.; cf. *EKC*), *dinden* ‘(haiek niri) eman diezadaten’ (*Viva Jesus* dotrinan; cf. Ulibarri 2010: 81, 42. oh.), etab.

Aditz hau laguntzaile gisa ere gramatikalizatu da. Euskalariak beste hautagai batzuk aipatu badituzte ere (*egin*, *jin*), gramatikalizazioaren teoriari esker orain ziurtasun handiz esan dezakegu euskara batuan N-N-N laguntzaile gisa hautatu den horretan gramatikalizatu dela, hain zuzen ere: *dio*, *didazu*, etab. Izan ere, *n* gabeko forma hauek lekukotasun zaharretan ‘eman’ adierarekin ere aurkitzen ditugun berberak dira.

### Beste aditz batzuk

Aditz gramatikalizatuena bide hau aski emankorra izan da Lakarraren berreraiketan. Hona, xehetasunetan sartu gabe, proposatu dituen gainerakoetako batzuk:

\*din “come” (eus. ‘etorri’)

→ -di/-ti ‘(atzizki) izenondogilea’ *han-di*, *lotsa-ti*...

→ -ti ‘(arkaikoa) prosekutiboa / (gero) ablatiboa’ *leihoti(k)* (*igaro da*)

\*don “take” zaharra (eus. ‘hartu’)

→ *edo* juntagailua

→ -to/-do ‘modala’ *on-do*, *eder-to*

→ *oro* ‘zenbatzaile orokorra’

→ -ro ‘modala’ *igandero*, *berriro*

→ *ra-* ‘atzizki arazlea’<sup>29</sup> *e-ra-kaR-i*

\*har “take” berria

→ *har* 3. graduko erakuslea → -a artikulua

\*san/so “say” (eus. ‘esan’)<sup>30</sup>

→ -so ‘familia marka (hurrunkoa)’ *arba-so*, *aita-so*, *ama-so*  
Agian baita *baso*, *atso*, *otso* eta beste fosilen batean ere badagoke

→ *oso* ‘zenbatzaile orokorra’

\*tzan “lie” (eus. ‘etzan’)

→ (t)z(a) ‘plurala’ aditzean: *dabil-tza*, *dakar-tza*... eta *dabil-tz* (> *dabi-z*)... *dato-z*, *daukagu-z*...

<sup>29</sup> Hau ulertzeko, *baso/basajaun* eta *deutso/deutsan* bikoteetan islatzen den txandakatzea hartu behar genuke gogoan, antza denez.

<sup>30</sup> Berriro ere -o/-an txandakatzea, aurreko oharrean aipatua.

izenean: *sasi-tza, diru-tza... / Elor-tza...*

→ *-tza(t)* ‘prolatiboa’      *on-tzat* (*eman*)

→ *-tze* aditz-izena    *har-tze-n, agur-tze-ra...*

## BIBLIOGRAFIA OSAGARRIA

- Arbelaitz, J. J., 1978, *Las etimologías vascas en la obra de Luis Michelena*. Gasteiz.
- Begiristain, Alazne, 2015, *Gogoetak Mitxelenaren errobo sistemaz eta honen historiaurreaz: ikuspegi berri baterantz*. Gasteiz: UPV/EHUko GRALa.
- Bakrò-Nagy, M. Sz., 1992, *Proto-Phonotactics. Phonotactic investigation of the PU and PFU consonant system*. Studia Uralica 5, Harrassowitz Verlag.
- Dixon, R.M.W. 1982 [1977]. *Where Have All the Adjectives Gone? and other essays in Semantics and Syntax*. Berlin: Mouton Publishers.
- Gómez, Ricardo, 2008, “Berriz Aizkibelen Euskera eskuizkribuaz: edizioa eta iturriak”, *ASJU* 42:1: 333-379.
- , 2009, “Las ideas lingüísticas de José Francisco Aizkibel: el manuscrito Euskera”. J. M. García Martín and V. Gaviño Rodríguez, *Las ideas y realidades lingüísticas en los siglos XVIII y XIX (Actas del VI Congreso Internacional de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística; Cádiz, 6-9 de noviembre de 2007)*, Sevilla: Universidad de Cádiz: 261-278.
- Grandi, N. & F. Montermini, 2005, “Prefix-suffix neutrality in evaluative morphology”, in G. Booij, E. Guevara, A. Ralli, S. Sgroi & S. Scalise (arg.), *Fourth Mediterranean Morphology Meeting (MMM4)*, 143-156.
- Krajewska, Dorota, 2016, “Euskarazko erlatiboen diakroniaz: testu zaharren azterketa”, *FLV* 122, 463-488.
- , 2017, *Euskararen sintaxi diakronikorantz: egitura konplexuak*. Gasteiz: UPV/EHUko doktore tesia.
- Lakarra, Joseba A., 1995, “Reconstructing the root in Pre-Proto-Basque”, in Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 189-206.
- , 2009 [2013], “ $*h_3 > h_1$ ,  $*h_2 > h_1$  eta horiei datzekien zenbait fenomeno”, *Lapurdum* 13: 247-272.
- , 2013b, “Euskararen historiaurrea”. J. Gorrochategui, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza (argitaratzeko).
- , 2013c, “Root Structure and the Reconstruction of Proto-Basque”. M. Martínez Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque*, Frankfurt am Main: Peter Langu: 173-221.
- , 2015, “Hiru hasperen haboro”. M. J. Ezeizabarrena and R. Gómez, *Eridenen du zerzaz kontenta: Sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, Gasteiz: UPV/EHU: 349-378.
- Mitxelena, Koldo, 1977b, “Notas sobre compuestos verbales vascos”. Orain *OOCC*, 269-300.
- Post, Mark, 2006, “Compounding and the Structure of the Tani Lexicon”, *Linguistics of the Tibeto-Burman Area* 29-1.
- Trask, Larry, 1977, “Historical syntax and Basque verbal morphology: Two hypotheses”, in W. A. Douglass, R. W. Etulain and W. A. Jacobsen (arg.), *Anglo-American contributions to Basque studies: Essays in honor of Jon Bilbao*. Reno: University of Nevada. Desert Research Institute, 203-217.
- Uhlenbeck, C. C., 1942, “Les couches anciennes du vocabulaire basque”, *Eusko-Jakintza* 1 [1947], 543-581. Niderlanderazko orijinalaren itzulpena (G. Lacombe).
- Ulibarri, Koldo, 2010, “Viva Jesus dotrina: edizioa eta azterketa”, *ASJU* 44-2: 41-154.